

Martina Ibaibarriaga, koronela

Deia, 1983-06-16.

Gure herriak eman dituen soldaduen artean, bada emakumezkorik. Munduan zehar ezagunena, XVIIgarren gizaldian bizi izan zen donostiar bat: Katalina de Erauso, *La Monja Alferes* goitizenez aipatzen diena.

Beste hau ez da hainbeste, baina ezagutaraztea merezi du.

Frantzesek XIXgarrenaren hasieran jaun eta jabe hemen zebiltzala gaiztakeria handiak egin zituzten, eta horietako batetan, 1808an, Gasteizen, Jose Ibaibarriagaren botikara sartu eta salaketa zela medio botikarioa eta honen emaztea eta semea, hirurak, hil zituzten.

Beste bi alabak ihes egin ahal izan zuten.

Martina zen nagusia, eta gorde zien frantzesei gorrotorik ordudunik.

Bost urte pasa eta frantzesak jipoi gogoangarria eta erabatekoa hartu zuten Wellington-go Dukeak eratu zien Gasteizeko bataila handian (1813). Buruzagi ospetsu honek *Longa* deitura zuen jeneralari dei egin zion zorionak emateko. Longa deitzen zioten hau *Francisco Tomas Antxia* zen, Mallabian jaioa, bizkaitarra beraz. "Longa" jaio zen baserriaren izena zen. Txikitan, eta errementaritza ikus zezan, Arabako Puebla de Arganzonera bidali zuten gurasoek, eta azkarra zen gaztetxo langintza ikasiz gainera nagusiaren alabarekin ezkondu zen.

Hala, etxe aurrean zegoela ikusi zituen Napoleonen tropak Madril bidean pasatzen.

Laister hasi zen aurkako lanetan, lehendabizi gerrilari bezala, ehun gizoneko talde baten buru; berehala nabarmendu zen ekintza sonatuekin, eta militar gisa hasi zen goratzen; Wellington britaniarrak deitu zion honetan Gasteizeko bataila handian espainolak ziren tropa guztien buru zen.

Baina itzuli gaitezen Ibaibarriagaren kondaketara.

Wellingtonek Longa zoriondu eta gero esan zion Gamarra Mayor-en defentsan hain ausarti jokatu zuen koronela ezagutu nahi zuela. "Zuk ezagutu nahi duzun hori –esan zion Longak– Koronel Martinez da..., harrituko zara, baina emakumezkoa da, Martina du izena"...

Eta kontatu zion gertatua: gizon jantzita soldadu bezala gerran luzaro ibili ondoren zaurituta erori zen; hemen agertu zen dagoeneko Koronelaren sexoa! baina sorpresa honen lekuko izan zirenak mehatxatu egin zituen Martinak: hitz bat honetaz esaten bazuten fusilatuko zituela.

Gasteizko bataila amaitu ondoren, Martinez Koronela honen mende egon zen ofiziale bategaz ezkondu zen, eta Koronelaren pentsioa kobratzen jarraitu zuen Oñan 1850ean, uztailaren 5ean hil zen arte.